

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



### ITZULIA WOMEN 2026

Lasterketaren irteera neutralizatua izango da eta Boulevardetik aterako da 10:23ak aldera. Txirrindulariak Boulevardetik berriro pasako dira 12:30ak aldera eta lasterketa 13:30ak aldera amaituko dute zumardian bertan.

09:50etik 11:30era, irteera neutralizatua dela eta mota guztietako trafikoen itxita egongo dira kale hauek: Hernani – Askatasuna – Urbieta – San Martin - Kontxa - Zumalakarregi - Tolosa – Añorgarantz.

Irteera ofiziala 10:30ean izango da, Añorgarako noranzkoan, eta Hernani, Astigarraga, Oiartzun, Errenteria, Lezo, Irun, Oiartzun eta Errenteria zeharkatu ondoren, Pasai Antxotik sartuko da Donostian, 12:30ak aldera.

**Hiritik igarotzea:** Buenavista - José Elozegi alkatea - Ategorrieta hiribidea - Nafarroa hiribidea - Zurriola hiribidea - Zurriolako zubia – Boulevard – Hernani - Askatasunaren hiribidea - Urbieta - San Martin - Kontxa pasealekua – Zumalakarregi – Tolosa hiribidea - Añorga... hiriko irteera.

Hiritik aterako dira berriro Añorgarako noranzkoan, 12:17ak aldera, eta Usurbil, Aginaga eta Igeldotik igaroko dira Boulevardeko helmugan amaitzeko.

**Sarrera hirira eta helmuga:** Aita Orkolaga - Igeldo - Cristóbal Balenciaga - Igeldo pasealekua – Iruñea - Zumalakarregi (kontrako noranzkoan) - Kontxa pasealekua (kontrako noranzkoan) San Martin (kontrako noranzkoan) – Urbieta (kontrako noranzkoan) – Askatasunaren hiribidea (kontrako noranzkoan) - Argentinako Errepublika - Erregina Erregeordea - Boulevard (amaieran).

Lehenengo txirrindulariak helmugara 13:20ak aldera iristea aurreikusten da. Proba 14:00etan amaituko da.

Donostia, 2025eko maiatzaren 13a